



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Bestea

Etxeko atetik ateratzean hasten da mundua; zaindu nor duzuen atzean, ez hitz egin ezezagunekin, mundua zain dago zuei daukazu-
zuen apurra kentzeko», eta gu ikaratuta ateratzen ginen etxetik ulertzen ez genuen mundu hartara. Eta eskolan lagunak egin genituen; gure gustuak, gure arropak, gure kezkak zituzten lagunak, eta haien babesean hasi ginen mundu arrotz hartara ateratzen; ezagutzen ez genuenarekiko erakarmenak sabela dantzan jarrita ezagutu genuen gaua, iraultze-kin egin genuen amets, lehenengo hegazkinak hartu genituen. Eta orain badirudi munduak ertzak tolestatu eta korapiloa egin diola bere buruari, gero eta estuagoa dela, gero eta itxiagoa.

Orain astero igarotzen gara Bulebarretik, baina ez gara munduari behetik gora begiratzen zioten begi zelatari haiek, kale bakoitzean sartzerako zailantza egiten zuten hanka ahul haiek; usain bakoitza, kolore bakoitza bereganatu nahi zuten zentzumen erotu haiek. Edo ez garenaren itxura egiten dugu behintzat.

Euritan hasi dugu udaberria eta jendea arkupeetan edo aterki beltzen azpian ezkutatu da; udaltzainak udal-
txepeko babesetik ari dira kioskoa zaintzen, eta autobusak ahoa zabaldu eta jendea bota eta bota ari dira aje egunetako aho likitsak bezala, bota eta bota, mundua ere ur-handitua balego bezala. Gizon batzuk botila baten inguruan elkartu dira banku artean, zigarro bat bestearen atzetik irentsi eta irentsi, arnasa galtzeko beldur balira bezala irentsi eta irentsi, eta autobusetatik jaitsi berriek zeharka begiratzen dituzte nikotinaz eta alkoholoz bustitako keak estalitako aurpegiak, hurbiltzeko beldur balira bezala, gure eta besteen arteko mugak zedarrituko balitu bezala. Bulebarreko egunkari-saltzailea aspertuta dago kaleari begira. Oinezko bakoitzak ze egunkari irakurtzen ote duen (irakurtzen badu) asmatzeko ahalegina egin dut, nork "Berria", nork GARA, nork "El Diario Vasco", nork "El Mundo", eta oinezko bakoitzak beroki-
pean egunkari bat daramala imajinatu

dut bandera bat bailitzan, ondo ezkutata, eta nire buruari galdetu diot nik irakurtzen ez dudan egunkariaren bat irakurtzen duten zenbatekin hitz egin ote dudan gaur. Hatzik ez dut poltsiko-etatik atera.

Kioskoko egunkari-azalak erreparasatu ditut. Lesbos agertu da, eta Idomeni, eta mugak, poliziak, gerrak, atentatuak, hilketak. Gu eta besteak. Eta eskola garaiekin akordatu naiz berriz ere: nola seinalatzen genuen galtza zulatuekin janzten zena, gaizki irakurtzen zuena, futbolearen jokatu nahi ez zuen mutila eta futbolearen jokatu nahi zuen neska; nork hartzen zuen erdigunea patioan eta nor zegoen ertzean; eta ondoren nola seinalatu ditugun arautik ateratzen direnak, gu bezalakoa ez direnak edo izan nahi ez dutenak edo izaten utzi ez diegunak. Zenbat zabalkuntzaren gainean eraiki dugun gure normaltasuna, zenbat muga dituen gure irekitasunak, gure bizikidetzak. Eta nola seinalatu gaituzten gu ere batzue-

tan, normala ez den hizkuntza bat erabiltzearen, normala ez den lan bat izatearen, normala ez den moduan maitatzearen.

Kutxazainari erreparatu diot. Txandaldul zulatudun gizon bat kartoiak zabaldu eta gaua pasatzeko prestatzen ari da. Dirua ateratzera joan naiz. Eta ez dit xentimorik ere eskatu. Pornografikoa ere bada autobusak jendea adina diru botatzen duen makinaren ondoan lo egitea. Eta pentsatu dut mugak ez direla geografikoak bakarrik, gure artean ere badirela Idomeniak; guak eta besteak. Ez da gauza bera ondoan beste hamaika edo hamaika beste izatea. Ondoregi ikasi genuen etxetik ateratakoan atzera begiratu behar dela, ezin dela ezezagunekin fidatu. Baina ezin dut ulertu nola, tarteka bestea izateak hainbeste sufriarazten didan honek ez duen ezer egiten bestearen lekuan jartzeko. Txarrantxazkoak diruditen mugak kartoizkoak dira ordea. Eta parean duguna ez da gure buruaren ispilu bat baino. •



Dirua ateratzera joan naiz, eta ez dit xentimorik ere eskatu.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS